DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

# Datuen babesari buruzko informazio gehigarria

## Tratamenduaren erantzulea

**Nortasuna**: Donostiako Udala – IFZ: P2007400A

**Helbidea**: Ijentea, 1 – 20003 Donostia

**Telefono zk.**: 010 / 943 481 000

**Helbide elektronikoa**: udalinfo@donostia.eus

**Datuak babesteko ordezkaria**: dbo@donostia.eus

## Tratamenduaren helburua

**Helburua**: filmatzeko baimenaren eskaera kudeatzea eta izapidetzea.

**Gordealdiak**: datu pertsonalak zertarako bildu ziren, helburu hori betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira, baita helburu horren eta datuen tratamenduaren ondorioz erator litezkeen erantzukizunak zehazteko ere. Artxibo eta dokumentazioko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

## Legitimazioa

DBEOren 6.1.e) artikulua: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren onerako eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren erantzuleak esleituta dituen botere publikoak erabiltzeko:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriena.

## Hartzaileak

Legeak ezarritakoak eta tratamendu honen eremuan aplikatu beharrekoak.

## Eskubideak

Eskubide hauek dituzte ukitutako pertsonek:

- Donostiako Udalak haien datu pertsonalak tratatzen dituen baiezta diezaiela.
- Beren datu pertsonaletara sartzea eta datu okerrak zuzentzeko eskatzea edo, beharrezkoa bada, horiek ezabatzeko eskatzea, baldin eta, beste arrazoi batzuen artean, datuak jadanik ez badira beharrezkoak horiek biltzea eragin zuen helburua betetzeko.
- Inguruabar jakin batzuetan, honako hau eska dezakete:
  - Datuen tratamendua mugatzeko eta, hala egiten badute, Donostiako Udalak erreklamazioak aurkezteko edo defendatzeko soilik gordeko ditu.
  - Datuen tratamenduari aurka egiteko eta, hala egiten badute, Donostiako Udalak datuak tratatzeari utziko dio, ezinbesteko arrazoi legitimoak dituenean edo erreklamazioak aurkeztu edo defendatu behar dituenean izan ezik. Barnean sartzen da banakako erabaki automatizatuak hartzeko egiten den datu tratamendua.

Eskubideak baliatzeko, hona jo dezakete: Donostiako Udala – Ijentea, 1 – 20003 Donostia.

Eskubideak baliatzean ez badute arreta egokia jaso, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkez dezakete. Helbidea: Tomas Zumarraga dohatsuaren kalea, 71 – 3. solairua – 01008 Vitoria-Gasteiz.